# DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 261. zenbakia. 2017ko azaroa




## Ahoa bizitu
## belarria prestatu
## EUSKARAK BEHAR ZAITU

# DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

**Non irakurtzen duzu?**

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

**Etxean doan jaso nahi?**

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hilero-hilero etxeko buzoian jasoko duzu.


Ugaro asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA




Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 174344 • ugaro@ugaro.com

Agente esklusiboak:
Allianz Seguros

***ARGITARATZAILEA:***
**Euskal Birusa Elkarte Kulturala.**
***HELBIDEA:***
**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta-kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.eus**
***ERREDAKZIO TALDEA:***
**Alazne Aiestaran,**
**Amaia Arginzoniz,**
**Dorleta Vidal,**
**Estibalitz González**
**eta Ekhi Velar.**
***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***
**Ekhi Velar.**
***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***
**Alazne Aiestaran.**
***AZALEKO ARGAZKIA:***
**Ekhi Velar.**
***LAGUNTZAILEAK:***
**Antonio Hernández 'Cuco',**
**Patxi López,**
**eta Valentin Mugarza.**
***ARGAZKIAK:***
**Riki G. Izarra,**
**Izaskun Zurikarai,**
**Alboka Musika Banda,**
**Estibalitz González,**
**Anaitasuna ikastola,**
**Artarrai,**
**Valentin Mugarza,**
**Txabi Arnal,**
**David Lopez,**
**Xabier Ziarsolo**
**eta Ekhi Velar.**
***PUBLIZITATEA:***
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
***INPRIMATEGIA:***
**Gertu Koop. (Oñati).**
***BANAKETA:***
**Ainitze Antxia, Mirene Moreno eta Olatz Vidal.**
***TIRADA:***
**2.425 ale.**
***ISSN:***
**1133-973X.**
***LEGE GORDAILUA:***
**SS-213/1994.**
***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Bat, bi, hiru eta lau **(Entzuteko: www.alboka.es)**

Bat, bi, hiru eta lau
Txomiñek andria
falta dau.
Bilbon daka dendia
sagar ustelez betia,
sagar ustelak saldutakuan
topatuko dau andria.
Bat, bi, hiru eta lau.



# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .......4
Peio Ziarsolo (Valentzia)
ELKARRIZKETA ..............5-7
Riki G. Izarra
MALLABIAN ZER? ........8-9
Izaskun Zurikarai
MOTZEAN ..................10
Alboka Banda, Celtas Cortosekin
SAN MARTIN AZOKA 11-15
San Martin Azokaren prestaketa martxan
MOTZEAN ..................16
Txabi Arnalen liburu berria
EUSKARAREN EGUNA ..17
Abenduaren 3an ospatuko da
ESKOLEN TXOKOA ......18
Anaitasuna ikastolaren berriak
BOTEPRONTOAN ........19
David Lopez
ANTZINAKOAK............20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ZORION-AGURRAK.......21
Saldu, erosi edo agurtu
ABENDUKO AGENDA...22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
*ERMUA HIRIKO UDALA*

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
*foru aldundia*
*diputación foral*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística




# Peio Ziarsolo

**Hogei urtetik gora daramatza Peio Ziarsolok Valentzian. Urte beterako joan zen, baina tira. Familia osatu du han eta gustura dago, baina noizean behin izaten dugu gurean. Valentziera ikasten ari dela aitortu digu, eta familia eta lagunak faltan botatzen dituela. Leihora irtetean Ermua inguratzen duten mendiak ikustea gustatuko litzaioke Valentzian.**



***-Duela zenbat urte joan zinen Ermutik? Zer dela-eta?***
1996an irten nintzen Ermutik Valentziara Biologia ikasketak egitera.

***-Erabaki erraza izan zen?***
Momentu hartan bai, izatez, urte beterako bakarrik nindoan-eta.

***-Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik bazenuen?***
Ez nuen bat ere ez ezagutzen. Nere Osaba Javi bertan bizi zen eta hori izan zen Valentzia aukeratzeko arrazoi bakarra.

***-Espero zenuen bezalakoa da?***
Txoke kultural ugari eduki nituen heldu berritan. Bertako telebistako zenbait programekin eta baita bertako idiosinkrasiarekin. Adibidez, asko erabiltzen dute “arreu” esaera, euskaraz ez daukagu itzultzeko hitzik baina gutxi gora behera “edonola baina aurrera” esan nahi duena. Hau da, ondo edo gaizki, egitea da garrantzitsua.

***-Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan? Ondo moldatzen zara? Joan aurretik menderatzen zenuen?***
Gazteleraz hitz egiten da, baina badago valentzieraz hitz egiten duenik ere, batez ere herri txikietan. Ni Valentziatik gertu dagoen herri batean bizi naiz eta bertan ehuneko berrogeita hamarrak valentzieraz hitz egiten du. Nire seme-alabek eta emazteak eskolan valentzieraz egiten dute, ni oraindik ikasten nabil.

***-Erabaki erraza izan zen?***
Momentu hartan bai, izatez, urte beterako bakarrik nindoan.

***-Zerbait botatzen duzu faltan?***
Familia batez ere. Baita lagunak ere, eta leihotik begiratzean zelai eta mendi berdeak ikustea.

***-Nolakoa da zure egun arrunt bat?***
Astean zehar lan egin eta umeekin parkean pasatzen ditugu arratsaldeak. Denbora dudanean korrika egitera irteten saiatzen naiz. Gustura bizi gara, ezin gara kexatu. Asteburuetan ahal dugunean mendira joatea gustatzen zaigu egunpasa.

***-Noiz egon zara Ermuan azken aldiz? Noiz bueltatuko zara?***
Azkenaldian Ermura baino, Zarautzera gehiago joan gara. Gurasoak bertan etxea dute eta eurak bisitatzera joaten gara, nahiz eta ahal izanez gero Ermura ere eskapadatxoren bat egiten dugun. Azkeneko aldian Bilboko jaietara joateko Ermua erabili genuen “Kanpo Base” bezala, nahiz eta Zarautzen geunden oporretan.

***-Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?***
Zaila izango da bueltatzea, baina nork daki zer ekarriko duen etorkizunak.

Ekhi Velar

San Antonio
OKINDEGIA
GOZOTEGIA


Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AIZ
Garraioak, S.L.
☎ 636 95 83 39 (JULEN)


AMAIA
HARATEGIA

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Riki G. Izarra:

# “Perretxikotan zabiltzanean albo batera uzten dituzu arazo eta buruhausteak”

**Ermuko Mikologiaren Lagunak elkarteak 30 urte bete ditu aurten. Hiru hamarkada pasa dira Riki González Izarra eta hainbat lagunek euripean lehen aldiz erakusketa egin zutenetik. Egoera hartan, dena kontra zutenean, jendeak begi onez ikusi zuen ekimen hura eta ordutik mikologiaren munduko kontuak ekarri dituzte herrira. 25 urteren ostean, orain dela bost urte utzi zuen taldea Rikik, baina perretxiko eta onddoekiko barnean duen maitasunak bizirik jarraitzen du.**

elkarrizketa

***- Gogoratzen duzu perretxikotan joan zinen lehen aldia?***

Txikitatik joan izan naiz perretxikotan. Nire osaba Pablo eta Nereok eramaten ninduten mendira. Beti zegoen norbait mendira joaten laguntzeko prest eta orduan hartzen ziren perretxikoak batzeko. Sasoi hartan ez zegoen ezagutza handirik gai horren inguruan, baina urritxa eta gibelurdinak ezagunak ziren. Esnegorria, adibidez, ez zen batzen. Beldurra zegoen, ardura eta zuhurtziaz jokatzen zuen jendeak. Gero, perretxikoenganako ezagutza hazten joan zen Bilboko Lotina farmazialariaren eta Jose María Busca Isusi gastronomo, kazetari eta idazlearen eskutik. Azken honek perretxikoen inguruko liburua idatzi zuen, eta akatsen bat bazegoen ere –normala sasoi hartan idatzi zuela kontuan izanda-, barkagarria da. Eurek bultzatu zituzten lehen erakusketak, beharbada Tolosaldean hasi zirenak. Erakusketa haietan perretxikoak jartzen ziren ikusgai, izendatuta, eta berritasuna zen jendearentzat. Ekimen horiek asko balio izan zuten perretxikoen inguruan ikasteko, horiek izan ziren ardatza.

***- Zer dauka mikologiak jendea hainbeste "kateatzeko"? Perretxiko bila noiz joan zain dagoen jende ugari dago.***

Batetik, perretxikotan joateko etxetik irten eta mendira joan behar zara, ezin dituzu kalean batu, eta bertara joateko ariketa fisikoa egin behar duzu. Bigarrenik, naturara hurbiltzen zaitu mikologiak eta botanikaren inguruan ikasten duzu hari esker –zuhaitz motak zeintzuk diren, adibidez. Bestalde, erlaxatzeko balio du, perretxikotan zauden momentuan albo batera uzten dituzu arazo eta buruhausteak, eta hori garrantzitsua da gizakiontzat. Azkenik, perretxikotan ibiltzetik bueltatzean, gastronomiaren mundua azaltzen da. Errezetak ezagutu eta elkarbanatzen dituzu, batutakoa jateko gozamenaz aparte. Hainbat arlo batzen ditu mikologiak eta, aipatutakoez gain, perretxikoen inguruan gehiago jakiteko ere balio du. Baten batek esan zuen bezala, "perretxiko guztiak dira jangarriak, baina batzuk behin bakarrik".

***- Sekretismo asko dago perretxikoak batzen diren tokiak jakinarazteko orduan. Zergatik?***

Lehen ez zegoen hainbeste sekretismo zentzu horretan, baina jende asko interesagatik mugitu da perretxikoen munduan. Batzuek perretxikoak saltzen dituzte, adibidez. Era berean, harrotasunez perretxiko asko jaso dituela esateko gogoa duen jende asko dago. Tira, gutxiago jasota zuretzat nahikoa bada, zergatik gehiago batu? Denok daukagu toki bereziren bat perretxikoak hartzeko, ehiztari eta arrantzaleek dituzten moduan. Kasu honetan ez dut uste sekretismo kontua denik, baizik eta bakoitzak bere espazioa gordetzen duela. Zure toki berezi horretan beste pertsonaren bat aurkitzen baduzu, tira, ez zaizu asko gustatzen, baina zure txokoa mantentzearren, ez beste ezerengatik. Nik lagunekin komentatzen dut toki honetara edo bestera joateko, onak direlakoan, gero beste kontu bat da han perretxikoak hartzea edo ez.

# "Naturari zor diogun errespetua gailendu behar da perretxikotan goazenean"

***- Beraz, perretxikotan joateko modu edo ikuspuntu ezberdinak daude?***

Naturari zor diogun errespetua izan behar da nagusi. Naturaren elementu guztiek funtzio bat daukate eta ez zait gustatzen mendian bandalismoa egitea. Batzuetan ematen du Atila eta bere lagunak pasatu direla handik! Nire ustez, zure lana egin beharko zenuke, paseoa eman eta kitto, errespetuz. Mendira joatea gustuko baduzu, bihar mendia berdin egotea gustatuko zaizu, beraz zaindu egin behar duzu.

***- Nola sortu zen 'Ermuko Mikologiaren Lagunak' elkartea?***

80. hamarkadaren erdialdean bazegoen lokal bat Ermuan, Kooperatibarena zena. Denda bat zen eta gaztetan libretarekin joaten ginen ber-

Tasio eta Sabino



# "Perretxikoen aurtengo kanpaina oso ahula izan da"







tara erostera. Lokal hura itxi eta hutsik geratu zen Udalaren eskuetan. Gabon batzuetan pentsatu genuen ondo egongo litzatekeela bertan perretxikoen argazkiak jartzea eta, argia ikusita, jendea barrura sartzen zen. Haren harira, pentsatu genuen taldea egin eta erakusketaren bat sortzea. Ekimena hazten joan zen eta beste ikuspuntu bat gehitu genion egitasmoari. Erakusketa egiteaz gain, eskoletan eskulanen lehiaketak sustatu genituen, hitzaldiak antolatu genituen, eta gastronomiaren munduan murgiltzeko, sukaldari famatuak ekarri genituen jardunaldi mikologikoetara. Perretxikoekin jakiak prestatzen zituzten eta gero elkarte gastronomiko batean batzen ginen gaiaren inguruan berba egiteko. Ondoren, Kirolaren Eguna ere bultzatu genuen, eta Julen Guerrero, Abraham Olano, Julian Gorospe, Marino Lejarreta eta beste hainbat kirolari etorri ziren. Jende ugari biltzen zen eurak ikusteko eta hitzaldi txiki bat ematen zuten jendaurrean. Ilusio handia sortzen zuen herrian ekimen horrek..

***- Mikologiarekin zerikusia duen taldea izateko, ekintza handiak dira?***

Bai, baina asko kostatzen zitzaigun horiek antolatzea. Ez da erraza hori jasatea, baina herriak dena ematen zuen. Lehenengo erakusketak egiten zirenean, adibidez, jende guztia joaten zen mendira perretxikotan. Kontua da inguruko tokietara joanez gero, antzeko perretxikoak jasotzen ditugula; beraz, sakabanatu egin behar izaten ginen aniztasun handiagoa lortzeko.

***- Nolakoa izan zen Ermuko Mikologiaren Lagunen bidea?***

Hasteko, gogoan ditut kulturako hainbat zinegotzi. Riverak, adibidez, ez zekien asko mikologiaren inguruan, baina babesa eta diru-laguntza eman zigun lehen erakusketa prestatzeko. Demaseko euria egin zuen eta arkupe batean kokatu genituen perretxikoak egurrezko mahai baten gainean. Gu ia negarrez geunden, baina jendeari gustatu egin zitzaion! Jendea txikiteoan zebilen eta taberna batetik bestera pasatzean perretxikoak ikusten geratzen zen. Urte askotan eguraldia lagun izan genuen eta beste batean demaseko haizea etorri zen. Gero, Caño eta Markina kultura zinegotziak ere oroitzen ditut, eta ondoren inguruneko zinegotzia arduratu zen mikologiaz. Mariasun Ardantzak asko lagundu gintuen, baina Cañorekin zerbait handia egiteko zorian egon ginen: laborategi bat. Horretarako, biologia ikasten zegoen neska batekin jarri ginen harremanetan, laborategiaren ardura har zezan, baina azkenean ezertan geratu zen guztia.

***- Laborategia zertarako?***

Perretxikoen inguruan ikertzeko eta mundu horrekin kontaktuan egoteko. Liofilizatutako perretxikoen bilduma osatzea zen nire ilusioa.

***- Orainari begiratuz, zer moduzkoa izan da perretxikoen aurtengo kanpaina?***

Oso ahula. Oraindik irtengo da perretxikoren bat, azken egunotan euria egin duelako. Onddoak ez dut uste irtengo direnik, baina norbaitek beti hartzen ditu. Pinu artean irtengo da ondoren bat. Uda euritsuak eta udazkenak izaten dira aproposenak, baina abenduan eta urtarrilean batzen dira espezie batzuk oraindik.

Ekhi Velar

DROGETEN ITTURRI
Publizitatea:
943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83




Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.
www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

### Izaskun Zurikarai, kirolaria:

# “Bizitza osoan nahi dut kirolaz gozatu”

**Kirolari lotutako bizitza du Izaskun Zurikaraik, afizio eta ofizioz. Kirol guztiak probatu dituela dio Mallabiko bizilagunak. Batzuk gustatu zaizkio eta beste batzuk ez, eta gozatzeko aukera ematen dizkiotenak praktikatzen ditu. Mendiko bizikletan aritzea da gehien gustatzen zaiona, baina korriketan ikusiko dugu sarri. Senarra kirol-lagun, hainbat toki ezagutzeko aukera ere eman dio kirolak.**



***- Gogoratzen duzu noiz hasi zinen kirola egiten?***

Txikitatik aritu naiz kirolean eta gero ere, Gorputz Hezkuntzako irakaslea izanda, beti egon naiz kirolari lotuta. Kirolak probatzea gustatzen zait, uste dut denak probatu ditudala. Korrika eta mendiko bizikletan ibiltzen naiz orain gehien bat, baina muturreraino joan gabe. Kirola modu osasuntsuan praktikatzen dut, izan ere, nire ustez orain obsesio gehiegi dagoela kirolarekin.

***- Zein kiroletan aritzen zinen txikitan?***

Eibarkoa naiz, Amaña auzokoa, eta eskubaloian eta futbitoan ibili nintzen han. Gero, Gasteizera joan nintzen ikasketak egitera eta kirol ugari probatu nituen. Ondoren, emakumezkoen errugbi taldea sortu genuen Eibarren, desagertu eta gero berriz martxan jarri zena. Denetarik egin izan dut, baina mendiko bizikleta da gehien gustatzen zaidan kirola. Kontua da denbora asko eskatzen duela; korrika egitea, ordea, errazagoa da, gainera sasoian jartzen zaitu, gero edozein gauza egin ahal izateko. Beraz, asko aritzen naiz korrikan. Kirolaz gozatzea gustatzen zait eta ez naiz batere lehiakorra, gutxiegi agian. Ez zait sufritzea gustatzen. Gainera, toki asko ezagutzeko aukera moduan ikusten dut kirola. Behin Kanariar Uharteetara joan ginen oporretan senarra eta biok, mendiko lasterketa bat zegoelako. Mendiko martxetara ere joaten gara toki ezberdinak ezagutzeko. Santiagoko Bidea ere egin genuen oinez.

***- Lehiakorra izan gabe ere, lasterketa batzuk irabazi dituzu!***

Bai, bi aldiz irabazi dut Loiolako mendi biatloia. 10 km mendiko bizikletan eta 4 km korrika eginez. Getaria eta Zarautz arteko igeriketa lasterketan ere aritu izan naiz. Lehen oso emakume gutxi aritzen ginen honelakoetan, baina orain asko hazi da emakumezkoen partaidetza. Sasoi baten, mendiko bizikleta martxa batzuetan ni izaten nintzen emakume bakarra. Martxa horietan, hala ere, ez dira sailkapenak egiten.

***- Gozamenerako gauza izatetik lehia hutseko kontua bihurtu da kirola?***

Denontzako tokia dagoela uste dut. Orain ondo egiten den gauza bat da, niri iritziz, lasterketa bat antolatzen denean aukera ezberdinak ematea: Esaterako, 20 km-ko bada, 5 km eta 10 km-ko ibilbideak egiteko aukera ematea. Korrika zein mendiko bizikletako lasterketetan ematen da hori. Bakoitzaren entrenamendu eta gaitasunen arabera egokitzeko aukera gehiago eskaintzen dira. Egia da, hala ere, lasterketa horietan parte hartzen duten batzuk errekorrekin eta halakoekin obsesionatzen direla. Nik, adibidez, inoiz ez dut erlojua begiratu. Nire helburua lasterketa amaitu eta gozatzea izaten da. Badago azken aldian pipertzen nauen zerbait. Behobia-Donostia lasterketan, adibidez, lau aldiz aritu naiz, eta bertan parte hartzeko ez dakit zenbat denbora aurretik eman behar den izena, agian zortzi hilabete lehenago, eta prezioa garestia da. Edozein karrera garestia da gaur egun, gehiegi. Badakit antolaketa ez dela erraza, eta lasterketan jatekoak eta bestelakoak nahi ditugula, baina batzuetan pasatu egiten dira. Bestetik, ez zait gustatzen lasterketa batean zortzi hilabete lehenago apuntatzea. Asteburu honetan eguraldi ona egin behar duela ikusten badut, martxaren bat non dagoen ikusi eta bertara joatea

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Dejate QUERER BERRIA ERMUA





gustatzen zait, momentuaren arabera. Nik beti funtzionatu dut horrela eta orain ezin dut hori egin. Gainera, Behobia-Donostia moduko lasterketetan dortsalak amaitu egiten dira. Beraz, xarma galdu dute niretzat, nahiz eta ulergarria den hainbat neurri hartu behar izana. Bere jarduna planeatzen duen jendearentzat ondo, baina uste dut lehiaketa askotan aritzea ere ez dela ona.

***- Kirola egiteko abilezia berezkoa duzu edo entrenatu beharreko zerbait izan da?***

Zati bat bai da berezkoa, genetikoa, baina entrenatu beharra dago. Ikasleak ikusten ditut eta kirola egiteko berezko erraztasuna daukate batzuk. Malgutasuna, bizkortasuna, indarra... berezkoa daukate. Batzuk kirola egiteko gaitasuna daukate, baina alperrak dira; eta beste batzuek ez daukate hainbeste gaitasun, baina entrenamenduarekin eta jarraikortasunarekin kirolari onak izatera heltzen dira. Berezko gaitasuna izan edo ez, beti entrenatu behar da eta jarraikortasuna izan. Kostantzia da gakoa, kirola egiteari uzten badiozu, gero gehiago kostatzen zaizulako. Erritmoa hartzen duzunean gozamena da, baina behin utzi eta berriz hastea kostatu egiten da. Nik inoiz ez diot kirola egiteari utzi, beti egin izan dut zerbait. Zorionez ez dut geldiarazi nauen lesiorik izan. Ez dut inoiz gorputza gehiegi behartu. Gogor aritu izanez gero, urteen ostean etortzen dira hernia eta belaunetako minak. Bizitza osoan nahi dut kirolaz gozatu!

***- Zein martxatan zaude orain?***

Gogoa dudanean egiten dut kirola, korrika eta mendiko bizikleta batez ere, baina azken hori udan gehien bat, neguan ez delako hain atsegina.

***- Egunero egiten duzu zerbait?***

Ez, astean hiru aldiz gutxi gorabehera. Batzuetan igerilekura ere jaisten naiz Ermura, eta neguan eskiatzera ere joaten gara. Ez dut planifikatzen zer egingo dudan, irteten dena egiten dut.

***- Bakarrik aritzen zara kirolean?***

Bizikletan ibiltzeko taldean irteteko ohitura dugu Mallabin, nahiz eta aspaldi irten ez garen. Bestela, senarrarekin egiten dut kirola normalean. Inor irten behar ez bada, ez daukat batere arazorik bizikletan bakarrik ibiltzeko, baina korrika bakarrik egitea gehiago kostatzen zait.

***- Kirolaren zein arlok harrapatu zaitu?***

Gustura sentiarazten nauela. Kirola egin eta gero daukadan sentsazioa ona da eta umore hobea daukadala igartzen dut. Makal sentitzen zaren egun batean kirola egin eta hobeto sentitzen zara.

Ekhi Velar















## INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA MARTXAN

Mozorro edo koko-jantziak prestatzeko goiz badirudi ere, Udala hasi da 2018ko inauteriak prestatzen. Horretarako, martxan jarri du kartel lehiaketa eta edonork bidali ahal izango du bere lana urtarrilaren 17ra arte. Teknika aldetik ere askatasun osoa izango dute partehartzaileek eta, irabaziz gero, 500 euro eskuratuko ditu kartel sarituak. Lanak Lobiano Kultur Gunean (Goienkale, 10) entregatu beharko dira eta urtarrilaren 19an emango da jakitera irabazlearen izena.

## ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAT HARRERA ZERBITZUA

Ermua eta Mallabiko udalek Durangaldeko gaueko harrera zerbitzuarekin bat egin dute etxerik gabeko pertsonei gaua pasatzeko baliabideak emateko. 2016-2019ko EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen barruan kokatzen den zerbitzua da eta gaua pasatzeko aukeraz gain, oinarrizko prestazioak eta higiene pertsonalerako zerbitzuak eskaintzen zaizkie behar dutenei.
Egonaldia astebetekoa izaten da eta behar izanez gero, luzatu daiteke. Egunero eskainiko den zerbitzua izango da eta momentu jakin batzuetan zerbitzua bereziki indartu daiteke.
Gaueko harrera zerbitzu honek bost toki eskainiko ditu Durangaldean, eta neguan hamar.

## IBON EGAÑARENTZAT KALTXANGO AEK-REN SARIA

Kaltxango AEK euskaltegiak otarra zozketatu zuen San Martin Egunean eta Ibon Egaña izan zen saritua, bere eskuetan baitzegoen 1170 zenbaki irabazlea.




# Alboka Banda, Celtas Cortosekin



Abenduaren 15erako dago hitzordua jarrita: Alboka Musika Bandak Valladolideko Celtas Cortos folk taldeari lagunduko dio Antzokian eskainiko duten kontzertuan. Taldeak saiakera berezia egin du banda sinfoniko ezberdinekin bere errepertorioko kantu esanguratsuenak jotzeko, Estatu eta Euskal Herriko hainbat lekutan esperimentatuz. Apirilean jaso zituzten Albokan kontzertua osatuko duten 16 abestien partiturak eta musikariakk buru-belarri eta ilusioz beteta dihardute egun horretakoa prestatzen.

# ‘Artarrai Lau Haizetara’ lehiaketaren saridunak

Artarrai Mendi Taldeak ‘Artarrai Lau Haizetara’ argazki lehiaketa jarri zuen martxan udan eta irabazleen izenak ezagutzera eman ditu. Lehiaketaren irabazlea Izaro Elejalde izan da, bigarren postua Eneko Listak eskuratu du eta Denis Saiz izan da hirugarrena. 77 argazkilarik hartu dute parte aurtengo edizioan.







# DanobatGroup-ek lehiaketa antolatu du aurten ere Euskararen Egunaren harira

Iazko ekimenari jarraituz, DanobatGroup taldeak lantegiak dituen herrietan Euskararen Nazioarteko Egunari begira lehiaketa jarri du martxan, ‘Euskara aldean, erabili lanean’ lelopean. Modu digitalean antolatu dute lehiaketa eta https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html helbidean sartu behar da parte hartu ahal izateko. Bertan, kooperatibari buruzko galdera orokor batzuei erantzun ondoren, DanobatGroupen hiztegi teknikoan sartu eta hainbat hitzen ordainak aukeratu beharko dira, besteak beste. Abenduaren 11ra arte egongo da zabalik lehiaketan parte-hartzeko epea, eta parte hartzaile guztien artean bi bono zozketatuko dira asteburu bat pasatzeko bi lagunek Euskal Herriko nekazalturismo batean.
Gizartearekin duen konpromisoa erakusteko asmoz, hainbat ekimenetan elkarlanean ari da DanobatGroup eta, bertako arduradunek azaldu diguten moduan, “euskararekiko konpromisoa ere bertan kokatzen da”. Bezeroekin sarri ingeleraz aritu behar bada ere, bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du DanobatGroupek: “Kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dauzkagun planak, eta lortutako eta lortzeko bidean gauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak, besteak beste”.

# XXVIII. SAN MARTIN AZOKA



Argazkiak: Xabier Ziarsolo eta Ekhi Belar.

## ESKERRIK ASKO GURE 264 LAGUNTZAILE GUZTI-GUZTIEI, EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI, AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN ERMUKO HERRIARI!

